

## **Ardia ongi ezagutu**

E.: nolako ardi arrazekin ai izan zira zu hasi zienetik? Zenbat arraza ezautu tuzu?

B.: ah, zonbat arraza... Nik ardi... Ardi mandoak nitin, burubeltzak erraiten da, bizkaino ardiak erten da orier, bai zonbait urtez bai, iziarri esnadunak dira ardi orik, biziki esnadunak, puxkaat baute beratz airiño at, bena maite zuten untsa emen, ta kausitzen nien nik eekin, biziki untsa kausitzen nien eekin, iziarriko interesa emaiteko, kasu, eh! Ardi unak zien. Ta gero her eman nin marro gorria, ta geo, ah, beti gorrizu, gorrizu, nik undarrian gorriak nitin aboxenak, bena Bizkaino ardia, ardi burubeltz ori, orik mandoak dira denak, zonbaiten baduzte olako adar kizita atzu, bena, eh, mandoak.

E.: adarrik gabe?

B.: bai, bai, ta ardi larriak dira orik, ordian, baizu, marroa eta gorria eta ori, burubeltzak ardiak, larrixoo hek beti, ardi larrixoguak jin zien, gorri izanik e, eta baizu, ardi larriak zien jeneralian.

E.: Luzaiden ere ardi mota orrekin ari zinezten?

B.: ez, ez, ez, han burubeltzak adardunak, han ez zen hoitaik, ja, neok e an, denak adardunak, adarkariak, burubeltzak, burubeltza, edo gaztain kolore, edo... Ez zen an so iten geo biziki eta koloriai ta fantesiai ez zen biziki so iten, ez. Bueno, ala ere burubeltza, pintarra zonbait, pintarra zonbait e ba, baizu ola, taxta zuri zonbait, pintarro erten da orier, hoitaik, ta gaztain kolore, ta denetaik.

E.: ta Uarten zinelaik, Uharte-Garazin, Uharte-Garazin?

B.: ze, nausi zenaindako? Ba eta leemiziko urtian erran baitut eta ardi antzu ek kendu-ta, ez zein bestek ardi... Gaztain kolore ta bazien, biziki ardi goorak, iziarri ardi goorak, ta pintarra, ta ala, erbi kolore atzu, ta burubeltz e ta denetaik, bena gero Baizkaino anitz gero re, gero berriz ondotik, baizu, mando burubeltz oitaik, ba ta ardiak saldu zitilaik, ala zien denak, nik eosi nitiilaik, Bizkaino ta hala-ala seitu nin zonbait urtez, ta gero hazten hasi baintzan, ordian marro gorria eman neen, ta ara, geo gorri... Gorriak nitin ardiak saldu nitiilaik.

E.: zuk ardiak erosten zintiilaik, zeri kasu maiten ziniin? Zek iten ziin ardi huna, erran baituzu ori.

B.: (irriak) zeri kasu iten? Bo, kasu iten nin dener, eta errainai re ba, erraina baizu, erraina baizu zer den? Bizkarra, ankain... anken aitzineko errain kuutz... Ua bear du xaala in aala, errain una ukaiteko, geo ilanta, ilia, baizu, ile ederra, ta iztaz airez e, ez ola elgar joiten, bi aldetaat, zango kakotzak, baizu? (...) kakotza ek, eta hortza, hortza re in aala xehe bear du ez

hortza ez luze, xehe bear du, hortz xehiak geio irauten du biziki, ta gero soinburiak-eta aalaz bear dira, bana...

E.: soinburuak nola bear du?

B.: ah, ua re xaalo balin bada obe, bena bo, ez da ez ardian ale so iten ari, marrotan so iten da geio ari, na ardiak e... Erraina ba, erraina aalaz una, ta errain una, oai aragiaina re obeki presentatzen du, eta errain... Ezur uneko ardia, beti hobeki presentatzen du. Hezur gaxtokoa, bueno barnean ez da una berdin, bana bizkarrez ez du hala presentatzen nola errain uneko ardiak, bai, ara ze bear din ardi ederraindako.

E.: kusten dira ardietan adar desberdinetako ardiak, izen bereziak badituzte horiek eta...

B.: bueno, zombaiti errain duzu xixtoa edo adar xixtoa.

E.: zer dira, zoin dira oriek?

B.: xixtoa olaxet zabal, ta gero aitzineat olaxe, beste atzu zahal (...), erten da adartzabala edo Kanttabria edo, berdin Kanttabria, edo adarzaala, edo gauza bera hori, beste atzu badira adarbildiak, olaxe bearrien petik, na hek oai so iten dute anitzek asteko orri, na ute adar xixtoa, edo adartzaala, edo bai ori da eta...

E.: adar xiflanteak ere...

B.: bai, xiflante bai, bankarrek-eta erten dute: “adarrak xiflantegi duzte”.

E.: zer dira oriek, xiflanteak?

B.: ola eta adarrak, xaal, edo... Xaal komunzki, edo aitzineat e, eta xixtoak, adar xixtoak, edo adartxabalak, ek berdin edo adartxaala, edo adarrak Kanttabriatze jin duk, ah, bere adar kanttabrekin pollita uk kaala ori, ta olaxe, ba, bai, bai.

#### **Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna**

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala